




Herritarrek euskal egoera eta bilakaera soziopolitikoaren inguruan duten ikuspegiari buruzko azterketa kualitatiboa

I. Olatua 2025. urtea

Emitzen txostena

(2025eko uztaila)



Kualitate
LANTALDEA



AURKIBIDEA

1

Fitxa teknikoa

3

2

**Herritarren diskurtsoa
Euskadiren egungo
garaiarekiko**

7

3

**Herritarren iritzia gai
zehatzekiko:
Osasungintza,
Hezkuntza, Industria.**

40

4

**Amaierako
kontsiderazioak**


71

1. Kapituluia

FITXA TEKNIKOA

1,1 Txostenaren helburuak

1,2 Erabilitako metodologia



1.1. Txostenaren helburuak

Txosten honen helburu nagusia **herritarrek euskal egoera eta bilakaera soziopolitikoaren inguruan duten ikuspegia biltzea** izan da.



Helburu hori gaikako **bi multzo handitan** irudikatzen da:

Herritarren diskurtsoa Euskadiren egungo garaiarekiko

Herritarren iritzia gai zehatzekiko: Osasungintza, Hezkuntza, Industria

1.2. Erabilitako metodologia

Jarraian, txostenaren helburuak betetzeko asmoz **erabili den metodologia** zehaztuko dugu.

Eztabaida taldeetatik edo *focus group* izenekoetatik abiatuta, metodologia kualitatiboa erabili da.

Teknika honi esker, **herritarrek hainbat gairi buruz duten diskurtsoaren funtsezko eta muineko elementuak bildu daitezke, eta gai horien aurrean duten jarrera zehazten duten arrazoieta eta argudioetan sakondu.**

Planteamendu misto bat burutu da, **6 eztabaida talde presentzial eta 6 on line** egin dira, **120 minutukoak.**

Zehazki, EAEn bizi diren **18 urtetik 75 urtera bitarteko pertsonen 12 eztabaida talde** eratu dira:

- 5** Eztabaida taldeak Bizkaian bizi diren pertsonekin.
- 4** Eztabaida taldeak Gipuzkoan bizi diren pertsonekin.
- 3** Eztabaida taldeak Araban bizi diren pertsonekin.



12

**eztabaida
taldeak edo
*focus
group*ak**

1.2. Erabilitako metodologia



Talde guztiak **mistoak izan dira sexuari dagokionez** (% 50 gizonak eta % 50 emakumeak).



Herritarren diskurtsoa biltzea bermatzeari begira, **ez dira alderdi politikoetako edo sindikatueta** pertsonak deitu.



Landa-lana **2025eko ekainaren 24tik uztailaren 3ra** arte burutu da.

2. Kapitulu

HERRITARREN DISKURTSOA EUSKADIREN EGUNGO GAIAREKIKO

2,1	Egungo garaiko gakoak
2,2	Euskadin hautematen diren arazoak
2,3	Nazioarteko testuinguruaren eragina
2,4	Espainiarekin konparaketa
2,5	Dimentsio politikoa Euskadin

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.1. Egungo garaiko gakoak

Euskadiren egungo garaia inguruan herritarrek duten berezko diskurtsoa **ZIURGABETASUN SENTSAZIO**TIK abiatuta eraikitzen da, eta sentsazio hori era honetan adierazi ohi da:



“Gauza asko konpondu behar dira” (31-50, Bizkaia)

“Aldaketa askori ari gara aurre egiten”
(31-50, Gipuzkoa)

“Ez dakigu norantz goazen” (+65, Bizkaia)

“Norabidea galdu dugu”
(31-50, Gipuzkoa)

“Ez dakigu nola amaituko den hau”
(18-30, Gipuzkoa)

“Ez dakigu gauzak norantz joango diren”
(+65, Gipuzkoa)

“Nazioarteko egoera oso ezegonkorra da” (51-65, Araba)

“Ez dakit zer gertatuko zaien gure umeei” (51-65, Araba)

“Ziurgabetasun izugarriko garai batean gaude”
(31-50, Bizkaia)

“Pandemiaren ostean, galdera etengabeen bizi gara”
(18-30, Araba)

Oro har, **sentsazio hori sozialki partekatua dela** ikus daiteke, alde batera utzita adina, generoa, ideologia, bizilekua... Halaber, agerian jartzen da **herritarrek etengabe dutela pertzepzio hori pandemiaz geroztik.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.1. Egungo garaiko gakoak

Ziurgabetasun sentsazio hori bi faktore nagusitatik abiatuta eraikitzen da **sozialki**. Diskurtso sozialean pisu handiena duen faktorea **Euskadin hautematen diren arazoekin** lotzen da, **zeinak egunerokoan ardaztuak eta dimentsio sozioekonomikoari estuki elkartuta daudenak**.



Bigarren mailan, **munduko egoerari loturiko faktore bat** identifikatzen da, eta diskurtsoan protagonismo handirik ez duen arren, **modu inplizituan agertzen da**.

Euskadin hautematen
diren arazoak



Munduko egoera



SOZIOEKONOMIKOAREN
PROTAGONISMOA



MAILA INPLIZITUAN
AGERTZEN DA

Jarraian, bi faktore hauetako bakoitzaren inguruko
hausnarketetan sakonduko dugu.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

Herritarrek **Euskadin identifikatutako problematiken** inguruan hitz egiten dutenean, **berezko diskurtsoa zortzi eremutan ardatzen da:**



Ikus daitekeen moduan, **hautemandako arazoen izaera sozioekonomikoa gailentzen da.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

ETXEBIZITZA

Euskadin hautematen diren arazoei dagokienez, **etxebizitza kezka nagusia da, eta, une askotan, diskurtso soziala monopolizatzen du:**



- “Nire pertzepzioa da gauzak ez doazela batere ondo. **Alokairuak gero eta garestiagoak dira eta pisuen prezioa ere bai**” (31-50, Bizkaia)
- “Argi dago **alokairuen eta erosketen prezioak izugarri garesti daudela. Prezio justu bat aurkitzen baduzu, aukera paregabea topatu duzu**” (51-65, Araba)
- “Bankuek eskatzen dizuten % 20 aurrezteko, mila urte igaro behar ditut euro bat ere gastatu gabe. **Niri ez zaizkit kontuak ateratzen Euskadin, agian prezioak baxuago dauden beste erkidego batzuetan bai**” (31-50, Bizkaia)
- “Hemen etxebizitzak balio duena **ezin da konparatu ere egin Kantabrian, Errioxan edo Gaztela eta Leonen balio duenarekin**, eta erkidegoen arteko soldata ezberdintasuna gero eta baxuagoa da” (51-65, Araba)
- “Etxebizitzaren arazoa estatu mailakoa da, baina **esango nuke hemen are gehiago areagotzen ari dela**” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Basaurin** eraiki dituzten azken pisuak **400.000 eta 600.000 eurotan daude. Erotuta gaude. Oraingo soldatekin, nork eros dezake hori?** (51-65, Bizkaia)

2. Herriarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

ETXEBIZITZA



- *“Oso zaila da etxebizitza bat erostea bi soldata on edukita ere. Gauzak jada ez dira lehen ziren bezalakoak” (31-50, Bizkaia)*
- *“Orain alokairurako eta sarrera emateko laguntzak daude, baina beste arazo bat dago: ez dago pisurik” (31-50, Gipuzkoa)*
- *“Ez dago pisurik, daudenak garestiegiak dira, hirian bizi nahi baduzu ezinezkoa da... Hiriguneak uztera behartuta sentitzen zara” (31-50, Gipuzkoa)*
- *“Ezin zaio dagoen etxebizitzaren eskariari erantzun. Ez dago nahikoa pisu eta zenbat eta eskari gehiago, orduan eta garestiago pisuak. Hortxe dago arazoa” (51-65, Araba)*
- *“Gu belaunaldi zorioneko bat izan gara. Nire semearentzat herrian etxe bat erostea erokeria bat da, dituzten prezioekin” (+65, Bizkaia)*
- *“Gure bizitza gutxi gorabehera bideratuta dago jada, baina bi nerabe ditut eta oso kezkatuta nago. Ez dut uste etxe bat erosterik izango dutenik etorkizunean” (51-65, Bizkaia)*

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin haudematen diren arazoak

ETXEBIZITZA



- “Nire anaiak 26 ditu eta urteak daramatza lan on batean, baina, hala ere, zail-zaila zaio auzoan etxe bat erostea. **Uste dut gazte guztiok gaudela horrela**” (18-30, Gipuzkoa)
- “Etxebizitzaren prezioa asko ari da igotzen eta **arazo oso larria da gazteentzat** ez baitugu aurrezteko hainbeste gaitasun” (18-30, Gipuzkoa)
- “Nik oraindik ez dut etxebizitza baterako sarbidea, **bikotearekin bizi naiz baina oraindik haren gurasoenean**. Eta bikoterik ez baduzu, esango nuke oraindik zailago duzula independizatzea” (18-30, Araba)
- “Orain bi laguntza ditugu alokairurako, Emantzipa eta Gaztelagun. Baina **adabaki bat** besterik ez dira **gehiagizko prezioen aurrean**” (18-30, Araba)
- “Esango nuke, orokorrean, euskaldunok **arazo gehiago ditugula etxebizitza topatzeko lana topatzeko baino**” (31-50, Bizkaia)

Sozialki etxebizitzaren arazoa modu honetan formulatzen da: **bertara sartzeko zailtasuna, bai erosteko, bai alokatzeko. Batez ere independizatu nahi duen biztanleria gaztearekin lotzen den arazoa da, eta, kasu batzuetan, are zailagoa da hori Euskadin beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuta.** Gainera, aztertutako *target* guztietan modu esanguratsuan ageri den **zeharkako kezka da.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

OSASUNGINTZA

Osasungintzaren eremuari dagokionez, **diskurtso sozialean** pixkanaka indarra galdu du pandemiari gertuagoko garaiekin alderatuz, **nahiz eta oraindik auzi sentiberatzat hartzen den eta kezka sortzen duen:**

- “Uste dut **sentsazio partekatua dela osasungintza gero eta okerrago doala**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Osasungintzan zerbitzu asko murrizten ari dira. **Osakidetza**ren garai onen oroitzen bizi gara, baina jada ez gaude garai hartan” (31-50, Gipuzkoa)
- “Osakidetza mailan, beti izan gara potentzia bat, baina **izugarritzko beherakada jasan dugu**” (51-65, Bizkaia)
- “Osakidetza oraintxe bertan dezepzio bat da. Eta hori **geneukan onena zela...**” (51-65, Araba)
- “**Iruren larrialdietako pediatria zerbitzua itxi dute, baita adingabekoen psikiatria ere**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Lehen, nire alabarekin nindoan osasun etxean **bi pediatria kontsulta zeuden, eta orain ez dago batere. Hala ere, gure aita beti primeran artatu dute** tratamendu ezberdinekin egon denean” (51-65, Araba)
- “**Larrialdietara zoazenean ordu gehiegi igarotzen dituzu** artatu zaitzaten **itxaroten**, gero txostenik gabe ateratzeko” (51-65, Araba)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

OSASUNGINTZA



- “Jende gazte asko dago **osasun mentaleko arazoekin eta baliabide oso gutxi**. Osakidetzan, beharbada, ez duzu psikologo bat hilabeteetan ikusiko” (18-30, Gipuzkoa)
- “**Osasun mentala** pandemiatik mahai gainean dagoen kontu bat da, baina ez zait iruditzen sakon heldu zaionik” (18-30, Araba)
- “Esango nuke **ez dela inbertitzen eta osasun publikoa alde batera uzten ari direla atzean interesak dituztelako**. Herritarrek aseguru pribatu bat kontrata dezagun nahi dute” (51-65, Araba)
- “Herritarrok ere ez gara nahikoa egiten ari zerbitzu publiko duinak defendatzeko. Osakidetzan, batzuetan, urte batetik besterako itxaron-zerrendak daude, **jendeak aseguru pribatuak kontratatzen ditu eta ezer gertatu ez balitz bezala**” (51-65, Bizkaia)
- “Joera apur bat aldatzen ari da, **osasungintzan zerbitzu ugari pribatizatzen hasi baitira**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Osakidetzan ikustera heltzen ez garen arazo asko daude. **Gernikako ospitalean greban egon dira** eta hala badaude, zerbaitegatik izango da. Ziurrenik euren egoera hobetzeko eta baliabide gehiago eskatzeko deitu dituzte” (31-50, Bizkaia)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

OSASUNGINTZA



- “Egia da halaber, **itxaron-zerrendak espezialitatearen arabera**koak direla hein handi batean” (51-65, Araba)
- “Ni ere nago itxaron-zerrenda batean, baina iruditzen zait **gauzak ez doazela hain gaizki Osakidetzan**” (51-65, Araba)
- “Castron bizi zen nire lankide bat haren amaren etxean zegoen erroldatuta **Osakidetzan artatu zezaten, Kantabrian egoera izugarri txarra baita**. Zerbait ariko gara ongi egiten...” (+65, Bizkaia)
- “Osasungintzari dagokionez, orain Pradales iritsi denez, **badirudi bete-betean sartu dela horrekin eta apur bat hobeto dabilela**” (+65, Bizkaia)
- “**Uste dut Osakidetza indarberritzen ari dela**, baina beheraldi bat izan zuela” (+65, Gipuzkoa)

Nolabait, herritarren artean adostasun bat dago **Osakidetza**ren atzerapausoari eta okertzeari dagokionez, **adinekoek positiboki baloratzen dituzten arren hobekuntza saiakera berriak**. Bere aldetik, **target gazteena** izan da bakarra **osasu mentalaren** gaiari heldu diona berezko diskurtsoan.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

HERRITARREN SEGURTASUNA

Sendotu egin da **Euskadin herritarren segurtasunik eza areagotzea** aipatzen duen pertzepzio soziala:



- “Egunero gero eta larritasun gehiago sortzen didan gai bat **kaleetan sentitzen dudana segurtasun eza da**” (31-50, Bizkaia)
- “**Azken urteotan gatazkak handitu** diren pertzepzioa dut. Delitu gehiago daudela sentitzen dut, delinkuentzia gehiago, agresibitate gehiago...” (51-65, Araba)
- “Bertakoak izan edo kanpokoak, kontua da **duela urte batzuk baino segurtasun gabezia handiagoa sentitzen dudala**” (31-50, Bizkaia)
- “Esango nuke **kaleetan segurtasun gabeziaren sentsazioa areagotzen ari dela**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Arma zuriz egindako erasoek gora egin dute. Orain bai **sentitzen dudala nolabaiteko segurtasun gabezia**” (51-65, Araba)
- “Egin diezazuketen onena lapurtzea den puntura heldu gara. Orain lapurretekin batera erasoak egin ohi dituzte. **Ikaratzen nauena ez da mugikorra lapurtzea, jipoi bat edo labankada bat ematea baizik**” (31-50, Bizkaia)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

HERRITARREN SEGURTASUNA



- “Kalean entzun dudana da Euskadi ez dagoela hain seguru. **Gasteizen** entzuten da, eta **Bilbon** ere bai, **borrokak daude labanez**” (51-65, Araba)
- “**Bilboko Alde Zaharreko** dendariak kokoteraino daude **lapurretez**. Etengabeko kontua da, nahiz eta patruilak igaro eta segurtasuna indartu” (31-50, Bizkaia)
- “Asko kezkatzen nau **Donostin** gertatzen ari denak. **Egun-argizko lapurretak eta indarkeria** ugaritu dira. Uste dut justiziak ez gaituela nahikoa babesten eta poliziak gehiago kontrolatu beharko lukeela” (31-50, Gipuzkoa)
- “Pena da **hirietan zona txarrak sortu izana**. Egia esan nahiko ghetto sortu dira” (31-50, Bizkaia)
- “Nire auzoan, duela urte batzuk oso arraroa zen patruila bat ikustea. Baina **atzo, 15 minutu eskasetan, hiru agertu ziren**” (51-65, Araba)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

HERRITARREN SEGURTASUNA

- “*Kanpotarren delinkuentziaren gero eta arazo gehiago dago*” (31-50, Bizkaia)
- “*Aurreko astean entzun nuen **borroka** bat egon zela **latinoamerikarren eta marokoarren artean** larunbat batez arratsaldeko seietan eta umeekin aurrean*” (51-65, Araba)
- “*Ez dut esaten **immigrazioak gatazkak sortzen dituenik, baina** gure gizartean integratzen diren arteko denbora tartean sortzen dira istilu gehien*” (51-65, Araba)
- “*Segurtasunaren eta **immigrazioaren gaia oso presente dago komunikabideetan eta sare sozialetan**, eta esango nuke horrek ere eragin handia duela diskurtso sozialean. Laguntzen ez duen **gezur** asko dago*” (31-50, Gipuzkoa)
- “*Lapurren **gehiengoa adin txikikoa denez**, ezin zaie ezer ere egin*” (31-50, Bizkaia)

Herritarren segurtasunaren inguruko diskurtsoa **sozialki zenbait osagai nagusitatik abiatuta eraikitzen da: delituak ugaritu** direlako pertzepzioa, **eraso fisikoen** beldurra, **hirigune** handiekiko lotura eta **immigrazioa** seinalatzea. **Target** gazteenaren artean, **berezko diskurtsoan duen protagonismoa nabarmen baxuagoa da.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

IMMIGRAZIOA



Aipatu den immigrazioak herritarren segurtasunik ezarekin duen lotura alde batera utzita, **fenomenoarekin lotutako beste elementu diskurtsibo esanguratsu batzuk** agertzen dira: Alde batetik, **gizarte laguntzak lortzeko lehentasuna** eta, bestetik, **integrazio prozesuetatik datozen erronkak**:

Immigrazioa vs. Gizarte Laguntzak

- *“Kanpotarrei besterik gabe ematen dizkiete laguntzak eta gero berrietan irakurtzen duzu jendeak 20.000 euroko iruzurra egin diola Lanbideri” (31-50, Bizkaia)*
- *“Nire auzoan ‘RGlak’ izeneko kuadrillak daude; izan ere laguntzez aprobetxatzen dira, gero zu kabroi baten antzera lanean egoteko” (51-65, Bizkaia)*
- *“Jendea dator kanpotik eta batzuetan badirudi haiei gehiago laguntzen zaiela hemengo jendeari baino, hauek ere laguntza behar duten arren” (31-50, Gipuzkoa)*
- *“Ni laguntzak eskatzera joan naiz eta ezetz esan didate hemengoa izateagatik eta familia edukitzeagatik. Badirudi lehendabizi kanpokoak daudela (51-65, Araba)*

2. Herriarren diskurtsoa egungo garaiairekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

IMMIGRAZIOA



- “13 urte egon nintzen lanik gabe, ikastaroak egitera sartu nintzen eta 55 urterekin arrandegiaren gremioan sartu nintzen. Ni ez naiz geldirik geratzen eta ikusten ari naiz, aitzitik, **besteek dena askoz errazago dutela. Flipatzen ari naiz**” (51-65, Bizkaia)
- “Ez nau harritzen atzerriarrek laguntzak eskatzea. **Oztopo gehiago jartzen dizkiete lan kontratu bat lortzeko denona den dirua jasotzeko baino.** Ez dauka inongo zentzurik. Zergatik bultzatzen da jende hau jada saturatuta dagoen laguntza-sistema baten menpeko izatera? (31-50, Bizkaia)
- “**Kanpoko jende gehiegi** dugu **laguntzekin.** Nahiko gaizki ari dira hori kudeatzen” (31-50, Bizkaia)
- “Nik ez diot ez laguntzeko, baina **ezin zaio jendeari bizitza osoan lagundu, lortzen ari baitzara alferragoak bihurtzea eta lan egin nahi ez izatea**” (51-65, Bizkaia)
- “Onkeriak suntsituko gaitu, baina egia da, laguntzen helburua gatazkak saihestea dela. **Kolektibo horietako askok laguntzarik jasoko ez balute, arazo gehiago egongo lirатеke.** Gai konplexu bat da” (51-65, Araba)

Laguntzetan atzerriarrek ustezko lehentasuna dutelako **bidegabekeria pertzepzioa**, indar handiagoz agertzen da **Gizarte Zerbitzuen laguntza eskatu dutenen artean, modu zuzen edo zeharkakoan, beren bizitzako unerik batean.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

IMMIGRAZIOA

Immigrazioa vs. Integrazioa



- “Iruditzen zait kultura-aniztasuna sekulakoa litzatekeela ondo lantzen bada, baina ez dira hori egiten ari. **Segregazio handia dago eta ghetto asko sortzen ari dira** eskoletan, auzoetan...” (18-30, Araba)
- “Ez dut uste kultura-aniztasunak funtzionatzen duenik **auzi sozial mordo batean gu baino askoz atzeratuago doazen kulturak** daude eta” (18-30, Gipuzkoa)
- “Kanpotarrak gure kulturen integratzen ez badira, **atzerapausoak emango ditugu giza eskubideetan eta emakumeenetan**” (18-30, Gipuzkoa)
- “Dagoen hegoamerikar kopuruarekin, gure gazteak **latinizatzen ari dira, etorri direnak euskaldundu orde**z” (+65, Gipuzkoa)
- “Gure kultura eta bizimodua gehiago errespetatu beharko lukete; izan ere, ondoren, haien herrialdeetara goazenean, **arazorik sortu nahi ez badugu, haiena errespetatu beste erremediorik ez dugu**” (51-65, Araba)
- “Integrazioaren impasse batean gaude. Gasteizera etorri nintzenean duela hamarkada batzuk **giroa oso osasuntsua zen, baina orain okertu egin da**” (51-65, Araba)

Oro har, **immigrazioaren integratzeko zailtasunei buruzko herritarren diskurtsoak antzekotasun nabarmena du, joera ideologikoa kontuan hartu gabe.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

PREZIOAK

Proportzio txikiagoan, eta etxebizitzaren prezioan ardaztutako diskurtsoaz haratago, herritarrek adierazi dute **desoreka nabarmena dagoela soldaten eta KPlaren igoeraren artean:**



- “Lehen, gure gurasoek lan egiten zuten eta etxean lagundu, eta orain guk lan egiten dugu eta lagundu egin behar digute. **Gazteon erosahalmena asko aldatu da urteekin**” (18-30, Gipuzkoa)
- “Pandemiatik **inflazioa asko handitu da eta soldatek berdin jarraitzen dute**. Egoera nahiko desesperagarria da” (31-50, Gipuzkoa)
- “Gelditu egin gara. Donostira jaisten bazara eta pintxoak jan edo erosketak egin nahi badituzu... **Dena igo da, soldatak mantendu egin diren bitartean**” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Erosketa-saskiaren igoera izugarrizkoa izan da eta soldatak ez dira proportzioan igo**. Gainera, soldata apur bat igotzen dizutenean badirudi eskerrak eman behar ditugula. Atzeraka goaz” (51-65, Bizkaia)
- “**Erosketa egitera joan eta egunero gutxiagorako ematen dizu**. Gero elikadura on bat jarraitu behar duzula esaten dizute, baina izugarri zaila da erosketa-saskia betetzea” (51-65, Bizkaia)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

PREZIOAK

- “Nire ustez ez gaude hain gaizki, baina hobeto egon gintezke, **gero eta distantzia gehiago** dagoela ikusten baitut **jende gaztearen eta adinekoen erosahalmenaren artean**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Hemen beste erkidego batzuetan baino hobeto kobratzen den arren, **ez digu ezertarako balio guztiaren prezioak altuagoak baldin badira**” (31-50, Bizkaia)
- “**Supermerkatura joan eta beldurtu egiten zara**. 100 euro uzten dituzu erraz luxuzko produkturik erosi gabe. Bizitza askoz ere merkeagoa den erkidegoak daude” (51-65, Araba)
- “Goitik behera goazela uste dut. **Inflazioak gure erosahalmena jan du**” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Prezioak soldatak baino altuago daude**” (31-50, Bizkaia)
- “Argi dago Euskadin galdu egin dela **lehen genuen erosahalmena**” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Erdiko klasea desagertzen ari da** eta klaseen arteko distantzia areagotzen hasi da” (31-50, Bizkaia)

Euskal herritarren artean erosahalmenaren galera progresiboaren sentrazioa egiaztatzen da, eta haren ondorioak **bereziki nabarmenak dira beren kargu umeak dituzten 31 eta 55 urte bitarteko pertsonen targetarentzat.**

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

INDUSTRIA

Era berean, **industria-sarea pixkanaka galtzea** ekarri duen berezko diskurtsoa sortu da, bai enpresak itxi direlako, bai deslokalizatu egin direlako:



- **“Lehen oso indartsuak ginen siderurgian, baina guzti hori galtzen joan da”** (31-50, Gipuzkoa)
- **“Azken urteetan enpresa asko ixten joan dira euskal probintzia guztietan”** (31-50, Bizkaia)
- **“Maila ekonomikoan, enpresa asko ixten ari dira. Nik Siemensen lan egiten duen, eta talde horrek berak itxi egingo du orain Nafarroan. Azkenean, hemen bi handi soilik geratuko dira: Mercedes eta Michelin. Gainerako enpresek eta lantegiek beherakada handia jasan dute”** (51-65, Araba)
- **“Duela zenbait urte jasan genuen beherakada. Industria eta enpresa handi asko deslokalizatu ziren errentagarriagoa zitzaielako. Gainera, fabrika horien barnean ere, zerbitzu asko kanpora ateratzen ari dira”** (18-30, Gipuzkoa)
- **“Enpresak itxi besterik ez dute egiten. Azkena Firestone izan da, kalean geratu diren 200 eta piko familia baino gehiagorekin. Eta jada ez daude alboan zeuden ez Edesa ez Formica”** (51-65, Bizkaia)

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

INDUSTRIA



- “Mundu mailan ezaguna zen presentzia industrialak izatetik **industria guzti hori galtzera igaro gara**. Nola azal liteke hori?” (51-65, Bizkaia)
- “**Enpresak Polonia moduko herrialdeetara joatea onartzen ari dira**, bertan eskulana merkeagoa baita. Ez dira ari industria-sarea indartzen” (51-65, Bizkaia)
- “**Ez dira ari jakiten industria-sarea zaintzen**, gehiago sustatu beharko lukete” (51-65, Araba)
- “**Euskadiko industria indarra galtzen ari da**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Potentzia industrial izugarria zuen erkidegoa ginen, baina orain **zerbitzuen alde ari gara jartzen gehiago**” (51-65, Bizkaia)

Industria-sarearen galera progresiboaren aipamena **maizago** agertzen da **31 eta 65 urte bitarteko biztanleen artean**, eta, gainera, euskal ekonomiarentzat estrategikoa den **sektorea bultzatzeko eta babesteko neurri nahikoa hartzen ez direlako pertzepzio orokorra** ere badute.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiairekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

LANA

Gaur egun, lanarekiko kezkak **ez du langabezia aipatzen, lan baldintzak eta prekaritatea baizik:**



- “Ni ondo nago, baina **kontratuen kalitateagatik beren lanean batere pozik ez dauden lagun asko ditut**” (31-50, Bizkaia)
- “Lana egon badago, baina **soldatak ez dira bereziki onak** eta baldintzak ere ez dira onenak” (31-50, Bizkaia)
- “Ni Gipuzkoakoa naiz, eta ikusten ari naiz **lan egoera eta hitzarmenak askoz hobeak zirela duela 20 urte**. Gaur egun iruditzen zait asko kostatzen dela langileen eta enpresarien artean akordioetara iristea” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Euskadin hitzarmen nazionalak ezartzeak** eragin du langile askoren lan baldintzak okerrera egitea” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Duela bi hamarkadako soldatak hobeak ziren**” (51-65, Bizkaia)

2. Herriarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

LANA

“

- “Gauza bat da bizitzea eta bestea bizirautea. Bizitzea da soldata batek ematea etxe bat, kotxe bat erosteko, oportetara joateko, ateratzeko... Nire gurasoek lan egiten zuten eta bizi ginen, baina **gaur eguneko soldatekin, bizi baino, bizirautean gabiltza**” (51-65, Bizkaia)
- “Goizeko seietan jaiki eta **hilabete amaierara iristen ez den jendea dago, bi lan edukita ere**” (51-65, Bizkaia)
- “Egun Euskadin **lan egiten duen jende pobrea ezagutzen ari naiz, hala ere hilabete amaierara iristen ez den jendea**. Hori bai ez nuela ikusi lehenago” (31-50, Gipuzkoa)

Lan-prekaritateari buruzko diskurtso sozialak soldatetan jartzen du nagusiki fokua, nahiz eta oro har hirugarren pertsonan deskribatzen den errealitatea izan.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak



LANA

Gazteak eta lan merkatura sartzeko
baldintzak

- *“Gaintitulazioaren une batean gaude. Uste dut gure gurasoek karrera baten ostean jada lana zutela; **guk, aldiz, karrera bat, master bat, eta hainbat praktika egin behar ditugu, eta, ondoren, gaizki ordaindutako lan batekin egiten dugu topo bat-batean, eta ez zaigu iristen emantzipatzeko**” (18-30, Araba)*
- *“**Lehen karrera bat edo master bat edukitzeak balioa zuen, egun badirudi ezetz mundu guztia doalako unibertsitatera, guztitik gehiago dago. Enpresek eduki dezakete gehiago exijitzeko eta gutxiago ordaintzeko ausardia**” (18-30, Gipuzkoa)*
- *“**Gazteok lan merkatuan lan prekarioekin sartzen gara, lan egindako ordu askorekin eta gaizki ordaindutakoekin. Eta zu ez bazara, beste norbait etorriko da atzetik. Izugarri zaila iruditzen zait egonkortasun laborala eta ekonomikoa lortzea gaztea naizelarik**” (18-30, Araba)*

Target gazteagoaren kasuan, lan merkatura baldintza egokiekin (soldata, bat datorren enplegua, egonkortasuna...) sartzeko zailtasunak aipatzen dituzte.

2. Herriarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

TURISMOA

Diskurtso sozialak fokua **turismoaren** ondorio negatiboetan jartzen du, zeinak etxebizitzari eta industriari lotzen zaizkien.

Turismoa vs. Etxebizitza



- “Etxebizitzaren prezioez haratago, ez dago nahikoa eskaintzarik. Adibidez, Bilbon, **etxebizitza asko pisu turistikoak dira jabeek onura gehiago ateratzen dutelako**” (31-50, Bizkaia)
- “Arazo oso larri bat dago etxebizitzarekin. Ni hona etorri nintzen bizitzera duela bi urte Donostin ezin delako bizi. Ez dago aukerarik gazteek etxerik erosteko; **sektorea alokairu turistikora oso bideratuta dago**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Zarautzen, alokairuak erabat eskueraezinak dira. Gutxi daude, garestiak dira eta **gehienak etxebizitza turistikoak dira**. Gehien kezkatzen gauzetako bat da” (31-50, Gipuzkoa)
- “Azkenean, Espainiako beste eremu batzuetako gauza bera gertatzen ari zaigu. **Pisuengatik gehiegizko prezioa ordaintzen duten turista asko etortzen dira, eta bertako biztanleak lekualdatzen dituzte**” (31-50, Bizkaia)
- “**Turismoaren eraginagatik**, lehen erdigunean etxea eros zezaketenak, kanpoaldera doaz orain. Eta kanpoaldean eros zezaketenak, orain **beste herri edo probintzietara joan behar dira**” (31-50, Bizkaia)

Turismoaren goraldia zuzenean lotzen da etxebizitza batera sartzeko arazoarekin.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.2. Euskadin hautematen diren arazoak

TURISMOA

Turismoa vs. Industria

- “Asko ari dira turismoan zentratzen, eta **iruditzen zait industria apur bat abandonatuta geratzen ari dela**” (31-50, Bizkaia)
- “Enpresa asko ixten eta beste asko beste herrialdeetara joaten ari diren bitartean, **turismoa bultzatzen ari dira, baina ez dut uste hortaz biziko garenik**” (51-65, Bizkaia)
- “Euskadi aldatu egin da; **industria alde batera utzi du eta turismoa sartu du**, zeinak ez dituen ez soldata onak, ez lan baldintza onak ematen” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Badirudi soilik turismoan pentsatzen dela. Zertaz biziko gara gu? Non eta nola biziko gara?** (51-65 urte, Bizkaia)

Turismoaren apustua Euskadiren motor ekonomikotzat industria edukitzeari uko egite moduan ulertzen da sozialki.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.3. Nazioarteko testuinguruaren eragina

Argi dago **Euskadiri buruzko diskurtsoa berrelikatu egiten duela mundu mailan hautematen den ezegonkortasun testuinguruak:**

- **Gerrak eta gatazkak**
- **Ultraeskuinaren gorakada**
- **Trumpen oldarraldia**
- **...**

Nazioarteko egoeraren aipamenak etengabekoak dira, Euskadiren egungo garaiari buruz hausnartzean.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.3. Nazioarteko testuinguruaren eragina



- “Egoera izugarri zail bat bizitzen ari gara. **Egunero gero eta ezegonkortasun gehiago dago munduan**” (18-30, Araba)
- “Mundu mailan, **gatazka dezenteko une batean daude, geopolitika, Palestinako genozidioa, Israel, Iran, Ameriketako Estatu Batuak, Ukraina...** Mundu mailako giroak ez du laguntzen” (18-30, Araba)
- “Munduan gertatzen diren prozesuetan guztiz sartuta gaude, eta **une honetan munduko egoera oso samina da ditugun gatazka guztiekin**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Nik albisteetatik deskonektatu behar dut **mundua oso gaizki baitago eta ez baitakigu nondik egingo duen eztanda**” (31-50, Bizkaia)
- Polarizazio handia dago Europa osoan **eskuin muturraren gorakadarekin** eta gerta litekeenak kezkatzen nau” (18-30, Araba)
- “Ez dago adorerik duen politikorik. Begira mundu mailan dugunari: **Trump, Milei, Bukele, Putin... Ultraeskuina gorantz doa** eta mundua ezegonkortzen ari da” (51-65, Araba)
- “**Trump duela urteak pentsaezinak ziren gauzak egiten ari da.** Eta egiten ditu eta ez zaio inporta. Ez dakigu oraindik nola eragingo digun” (31-50, Bizkaia)

Euskal herritarrek barneratu dute, batez ere pandemiatik, Euskadi ez dagoela —nagusiki negatiboak diren— egungo dinamiketatik kanpo, zeinak munduko egoeran eragina duten.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.4. Espainiarekin konparaketa

Berezko diskurtso kritiko baten testuinguruan, hain zuzen ere **Espainiako Estatuarekin alderatzeak ahalbidetzen du Euskadiri buruzko diskurtso positiboa egitea.**

Alderaketa horretan, **dimentsio ekonomiko zein politikoa aipatzen da.**

1) EKONOMIKOtik,
Euskadi honako
hobeekin nabaritzen da...

- Bizi kalitatea
- Zerbitzu publikoak

2) POLITIKOtik,
Euskadi honako hauek
gabe nabaritzen da...

- Ernegazio politikoa
- Eskuin muturra



2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.4. Espainiarekin konparaketa

DIMENTSIO EKONOMIKOA



- “Maila ekonomikoan eta zerbitzu publikoenean gainerako Espainia baino nahiko hobeto gaude. Baina, horrek ondo gaudela esan nahi du? **Gainerakoei baino hobeto doakigulako ideia horrekin asko konformatzen gara**” (51-65, Bizkaia)
- “Gainerako Espainia baino hobeto gaude bizi kalitateari eta erosahalmenari dagokionez, baina **atzera begiratzen badugu, lehen baino okerrago gaude**” (+65, Gipuzkoa)
- “Euskadi **beste batzuk baino hobeto dago, baina ez dago ondo**. Lerroburu bat eman beharko banu, honakoa litzateke: ‘Zeinen tristea zerbait positiboa gainerakoekin alderatzean soilik ateratzea’” (18-30, Araba)
- “Zerbitzu publikoen mailan, **Euskadin ez gaude hain gaizki gainerako Espainiarekin alderatuta**” (18-31, Araba)
- “Euskadiko egoera **hobea da beste probintzietakoa baino, zerbitzu publiko hobeak izatea ahalbidetzen diguten funtsak baititugu hemen**” (31-50, Gipuzkoa)
- “Nire sentipena da hemen ongi bizi garela jar ditzakegun traba guztiekin ere. **Askok kexatzen gara Osakidetza, baina osasungintza beste leku batzuetan askoz okerrago dago**” (51-65, Araba)

Euskadin bizi kalitate handiagoa eta zerbitzu publikoetarako sarbide hobea dagoelako sentiazioa egon arren, Estatuarekin pixkanaka berdintzen gaituen atzerakada progresibo bat gertatu dela ondorioztatzen da.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.4. Espainiarekin konparaketa

DIMENTSIO POLITIKOA

- *“Hemengo giro politikoak ez du zerikusirik Espainian dagoenarekin. Hemen gatazka gutxiago ditugu eta lasaitasun gehiago, adostasun gehiago. Espero dut horrek hala jarraitzea” (31-50, Gipuzkoa)*
- *“Diputatuen Kongresuko ernegazio politikoa ez zait batere normala iruditzen. **Hor behintzat nahiko bereizten gara**” (51-65, Bizkaia)*
- *“Maila politikoan **hemen lasaitasuna eta elkarrizketa gailentzen dira**. Esango nuke gauzak ondo egiten saiatzen ari direla” (31-50, Bizkaia)*
- *“**Euskadin agian urrunagoa da**, baina Estatu mailan uste dut **eskuin muturrak gero eta indar gehiago hartuko duela**, batez ere, sare sozialetan ikusten duten guztia sinesten duten eta desinformatuta dauden gazteen artean” (18-30, Araba)*
- *“**Hemengo gazteak gero eta erradikalizatuago daude eskuin muturreko influencerrak eta youtuberrak jarraitzen dituztelako, zeinek, gainera, mezu oso matxistak zabaltzen dituzten**” (18-30, Gipuzkoa)*

Euskadin giro politiko osasuntsuagoaren sentsazioa zeharkakoa da ikerketan behatutako target guztientzat. Hala ere, nolabaiteko kezka nabaritzen da Espainian hautematen den kultura politikoarengandik kutsatzeko arriskuagatik, batez ere, gazteen kasuan.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.5. Dimentsio politikoa Euskadin

Azpimarratzekoa da **dimentsio politikoak** pisu txikia duela herritarrek Euskadin hautemandako egoerari buruz duten diskurtsoan.

Agertzean, **bi auzi nagusi** aipatzen dira:

1) EUSKADIN
BIPARTIDISMO FALTSU
BATEN ESZENATOKIA
SORTZEA



2) EUSKADIN
DESMOBILIZAZIO
SOZIALAREN PROZESU
BAT FINKATZEA

Jarraian, **haietako bakoitzean** sakonduko dugu.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.5. Dimentsio politikoa Euskadin

1) EUSKADIN BIPARTIDISMO FALTSU BATEN ESZENATOKIA SORTZEA

- 
- “*Maila politikoan, **bipartidismo estrapolatu** bat dugu, zeina ez den nazionala, baizik eta autonomikoa, eta EAJ eta Bilduren artean borrokatzen den*” (31-50, Gipuzkoa)
 - “*Gaur egun Euskadi **EAJ eta Bilduren artean banatzen da**. Bien artean alde handiz irabazten dute*” (18-30, Gipuzkoa)
 - “*Denborarekin **Bildu konformistagoa eta isilagoa bihurtu da**. Esango nuke gobernatu nahi duelako burgestu egin dela*” (51-65, Bizkaia)
 - “*Lehen **Bilduk gogor estutzen zuen eta orain ahoa irekitzea kostatzen zaio**. Uste dut ongi egokituta dagoela boterea ukitzea oso zaila delako eta ez duelako galdu nahi*” (51-65, Bizkaia)
 - “*Bildurekin iraganeko zalaparta batetik gatoz eta **orain lasaitasuna moduan dago, ez dago konfrontaziorik**. Beste Estatu baten agintaritzapean gaudela onartu da*” (31-50, Gipuzkoa)

EH Bilduk egin duen apustu moderatuak bipartidismotik gertuko egoera berri hau bultzatu duela onartzen da.

2. Herritarren diskurtsoa egungo garaiarekiko

2.5. Dimentsio politikoa Euskadin

2) EUSKADIN DESMOBILIZAZIO SOZIALAREN PROZESU BAT FINKATZEA



- “Ez dakit gazteok axolagabe batzuk garen, baina egia da **nazkatuta gaudela baina ez dugula ezer ere ez egiten gauzak aldatzeko**” (18-30, Gipuzkoa)
- “Ezberdintasun handia dago gaur egungo gazteriaren eta duela 20 urtekoaren artean. **Gaur egungo gazteek ez dute ezer erreibindikatzeko**, gu gazteak ginenean, aldiz, etengabeko erreibindikazioa zen askotariko eremuetan” (51-65, Araba)
- “Gaur egun **okerrago gaude eta ez gara kalera protesta egitera ateratzen**, ez gazteok ezta adinekook ere. Lehen edozergatik ateratzen ginen” (31-50, Gipuzkoa)
- “**Gizarte oso eroso**a bihurtu gara, **ezergatik borrokatzen ez duena, etsi egin dugu**. Lehen edozergatik borroka egitera ateratzen ginen eta orain hobekuntzarik ez dagoela ikusten dugu, aurrerapenak minimoak direla, eta ez dugu ezer egiten. Garai oso indibidualistan bizi gara” (51-65, Bizkaia)
- “Desinformazioaren fenomenoak eragin handia du politikan eta **mobilizatzen gaituen izaera kritiko bat izatea zailtzen du**” (51-65, Bizkaia)

Gizarte desmobilitatuago eta indibidualistago baten kezka indar handiagoz azaleratzen da ideologia aurrerakoia duten pertsonengan.

3. Kapituluia

Herritarren iritzia gai zehatzekiko

3,1

Osasungintzarekiko iritzia

3,2

Hezkuntzarekiko iritzia

3,3

Industriarekiko iritzia

3. Herritarren iritzia gai zehatzekiko: Analisiaren markoa

Hautatutako hiru eremuetan (osasungintza, hezkuntza eta industria) **herritarren iritzia** ezagutzeko, **honako segida analitikoa** garatu da:

ZER EZAUGARRI DITU
HERRITARREN
DISKURTSOAK?



Eremu bakoitzari buruzko **diskurtsoa definitzen duten bereizgarriak** aurkezten dira, jarioari, tonuari, ezagutzari edo kasu bakoitzean nabarmendu diren beste aldagai batzuei dagokienez.

Ariketa horren **helburua testuinguruan jartzea da.**

NOLA DEFINITZEN DA
EGOERA?



Atributuak eta adjektiboak erabiliz, modu sintetikoan aurkezten da herritarrak eremuan hautemandako egoera.

Ariketa honek **diagnostikoa sortzeko helburua du.**

ZER FAKTORETATIK
ABIATUTA ERAIKITZEN DA
PERTZEPZIOA?



Atal honetan, egoera azaltzeko herritarrek erabilitako **adibideak eta argudioak** azaltzen dira. Noizean behin, adinagatik, ideologiagatik, bizilekuagatik, eta abar segmentazioak egiten dira.

Ariketa honek **asmo argitzailea du.**

3.1. Herritarren iritzia osasungintzarekiko

A) ZER EZAUGARRI DITU HERRITARREN DISKURTSOAK?

Herritarrak Euskadiko osasunaren egoerari buruz galdetzean, **erantzunak erabat zentratzen dira** osasun-sistemaren inguruan, eta, zehatzago, **Osakidetza**ren inguruan.



ZABALA

Herritarrek **argudio kopuru zabala** erabiltzen dute beren diagnostikoa burutzeko.



ESPERIENTZIA N OINARRITUA

Diskurtsoa oso modu esanguratsuan oinarritzen da Osakidetzako erabiltzaile gisa izandako **esperientzia propioan**.



ATZERA BEGIRAKOA

Balorazioen zati garrantzitsu batek **“lehengo” Osakidetza**ren eta **“oraingoa”-ren** arteko alderaketa egiten du.



EMOZIONALA

Balorazioetan **erraietatik datozela** nabari daiteke, **garrantzi handia ematen zaion** eremua izatearen seinale.



PARTEKATUA

Osakidetzaren egoerari buruzko **adostasun zabala** antzeman da, zenbait populazio-segmentu batzuetan ñabardura txikiekin.

3.1. Herritarren iritzia osasungintzarekiko

B) NOLA DEFINITZEN DA EGOERA?

GAINEZKA...



...ETA GAINBEHERAN

*“Argi eta garbi **gaindituta dago, gainezka**”
(18-30, Araba)*

*“Sistemak **tentsio handia** du, daude baliabideekin ez du
ematen premia guztietarako” (51-65, Araba)*

*“Sistemak **kolapsatzeko sintomak** emango balitu
bezala da” (18-30, Gipuzkoa)*

*“Osakidetza **gainezka** dago, batez ere COVIDaren
ostean” (31-50, Bizkaia)*

*“Ez dakit **gainezka edo gaizki tratatua** dagoen esan”
(51-65, Bizkaia)*

*“Osakidetza **errentetatik bizi da**, jada ez da hain
ona” (31-50, Bizkaia)*

*“**Jada ez** da lehen **zen ikurra**, okerrago doa...”
(51-65, Araba)*

*“**Ez da lehengo Osakidetza**, gaizki gaude” (+65
urte, Bizkaia)*

*“Beherakada izan dugu, lehen **punta-puntakoak**
ginen, orain **dardaraka gaude** eta konparazio
bidez soilik irabazten dugu” (31-50, Bizkaia)*

*“Esango nuke hemen denok **nostalgiaz**
begiratzen diogula iraganari” (31-50, Gipuzkoa)*

